



**Txanogorritxorekin algaraka.**- Glu Glu antzerki taldearen eskutik, 'Txanogorritxo' obrarekin arratsalde atsegina pasa zuten Lasarte-Oriako txikienek larunbatean. Charles Perrault-en ipuin klasikoaren moldaketa ikusi ahal izan zuten bertaratutakoek Manuel Lekuona kultur etxean. Amonaren etxera joateko basoa zeharkatu beharko du Txanogorritxok, eta bidean jolasean arituko da bertako animaliekin. Jolasa ezinbestekoa da, baina begiak erne eduki behar dira momentu oro. Hori aldarrikatu nahi du 'Txanogorritxo' antzerkian. Umeentzako moldaketa klasiko ugari egiten ditu Glu Glu taldeak. Besteak beste, 'Hansel eta Gretel', 'Ahatetxo Itxusia', 'Hiru Txerri-  
txoak' eta 'Arratoitxo Pinpirina'. Larunbat arratsean giro bikaina egin bazuen ere, antzerkiaren gozatzea aukera bikaina izan zen txikienezako eta euren gurasoentzat. Txanogorritxo, otsoa, erleak eta beste pertsonaiekin batera, jolasaren garrantziak aritu ziren eta, ziur aski, hurrengoan ere antzerkiera bueltatzeko gogoz geratu ziren bertaratutako txiki asko.

## 2 ELKARTEAK

### Semblante andaluz elkartearen asteburu handia

Ostiraletik igandera ekintzaz jositako egitaraua prestatu du Semblante Andaluz elkarteak. Zuzendaritza batzorde berria hautatuko dute ostiral arratsaldean. Larunbatean dantza taldeek eta abesbatzek girotuko dute eguna. Igandean, berriz, meza eta bazkaria egingo dituzte. Bazkalostean, berriz, dantzaldia egongo da.

## 4 ERRAUSTEGIA

### Hitzaldia eta martxa errauskailuaren kontra

Aste honetan, errauskailuaren kontrako eragileek bi ekintza antolatu dituzte. Aire Garbia plataformak antolatuta, 'Errauste planta eta osasuna' hitzaldia eskainiko du Errausketa eta Osasuna ikerketa taldeak Manuel Lekuona kultur etxean. Larunbatean herri ezberdinetatik martxak egingo dituzte Zubietara.

## 5 ISLADA EZKUTATUAK

### Gerra Zibileko lubakiak aztertzen Txaldataxurren

Igande goizean Islada Ezkutatuak taldeko kideek herritar talde bati Txaldataxurreko lubaki eta Gerra Zibileko aztarnak erakutsi zizkieten. Topatutako munizio, arma eta bestelakoak partekatzeaz gain, Lasarte-Oria inguruan gudaren nondik norakoak azaldu zituen Joxe Agustin Muguruza taldeko kideak.



ZURE BIGARREN  
BETAURREKO PROGRESIBOAK

**OPARI**  
**VARILUX**

ERABATEKO BABESA

[www.multiopicasgipuzkoa.com](http://www.multiopicasgipuzkoa.com)

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE**

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan

## KULTURA

# Semblante Andaluz elkartearen asteburu handia

## Ekintzaz jositako egitaraua prestatu dute antolatzaileek, ostiraletik igandera bitartean

Andaluziaren festa handia ospatuko du Semblante Andaluz elkarteak asteburu honetan zehar. Ostiraletik hasi eta igandera bitarte, ekintzaz jositako egitaraua prestatu dute antolatzaileek: agintarientzat mokadutxoak eta ohorezko ardoa, hainbat artistaren emanaldiak, meza Arantzazuko Ama parrokian, herri bazkaria, dantzaldia, eta abar. Otsailaren 28an, igandez, Andaluziaren XXIII. eguna ospatuko dute. Herritarrek festara gonbidatzen dituzte.

**O**stiraletan hasiko da Semblante Andaluz elkartearen asteburu handia. Zuzendaritza batzorde berria aukeratu eta botere aldaketa eginez ekingio die ospakizunei. Horrez gain, agintariek topa egingo dute ohorezko ardoa edanez, eta mokadutxo bat ere jango dute denek elkarrekin. Arratsaldeko zortzietan jarri dute hitzordua.

Larunbatean segituko dute ospakizunek, 17:30ean hasita: Gitanillos del Alba, Duende Flamenco, Azabache eta Zambra dantza-taldeek emanaldiak eskainiko dituzte kul-

tur elkarteetan. Hori eta gero, arratsaldeko zazpitan, Coros y Danzas Virgen de Guadalupe korua igoko da oholtza gainera. Donostian dagoen extremadurar elkartetik dator taldea. Hortik ordubetera Semblante Rociero koruak eskainiko du emanaldia.

**Igandean, goiz eta arratsalde** Andaluziaren XXIII. eguna ospatuko dute igandean. Hori dela eta, egun horretan egingo dira egitarauan jasotako ekintza gehienak. Meza rozierorrek ekingo diote asteko azken egunari. Arantzazuko



Andaluziar musika eta abestiak izango dira protagonista asteburuan zehar, Semblante Andaluz taldearen elkarteetan.

Ama parrokian elkartuko dira; ekitaldia Semblante Rociero koruak girotuko du.

14:00etan harrera egingo diete agintariei, Semblanteren kultur elkarteetan. Andaluziar ereserkiak abestuko dute denek elkarrekin, eta elkarteko mahaian bueltan bilduko dira

gero, denek elkarrekin bazkari legea egiteko.

Digestioa egin ostean, arratsaldeko zazpitan Amigos del Sur taldearen emanaldia izango dute ikusgai herritarrek, kultur elkarteetan bertan. Handik ordu erdira gorputza martxan jarri ahalko dute, herri

dantzaldian. 21:30ean amaituko du elkarteak Andaluziaren asteburu handia.

Semblante Andaluzeko kideek lasarteoriatar guztiei egiten diete gonbita asteburuan zehar programatutako ekintzetan parte hartu eta festaz gozatzera.

# Hassana Aalia aktibistaren hitzaldia bihar, Furia Beltzan

**L**arunbatean lau hamarkada beteko dira SEAD Saharar Errepublikako Arabiar Demokratikoa aldarrikatua izan zenetik. Urtemuga berezi hori ospatzeko asmoz, hainbat ekitaldi prestatu ditu Saharako Lagunak taldeak.

Bihar egingo dute lehenengo, Furia Beltza tabernan. Hassana Aalia aktibistak hitzaldia eskainiko du bertan, arratsaldeko zazpitan.

### Kontzentrazioa larunbatean

Otsailaren 27an, larunbatez, SEAD aldarrikatu zenetik 40 urte beteko dira. Egun horretarako antolatu ditu zenbait ekintza Saharako Lagunak taldeak. Eguerdiko hamabietan kontzentrazioa egingo dute

Okendo plazan, 'Maroko Saharatik at, independentzia Mendebaldeko Sahararentzat' lelopean. Horrekin batera, SEADren bandera zintzilikatuko dute udaletxe zaharreko balkoian, egun osoan zehar.

Horiek ez dira larunbaterako prestatu dituzten ekintza bakarrak: Antonio Mercero gunean erakusketa bat jarriko dute. Garikoitz Lasa donostiarrek errefuxiatu guneetan aterako argazkiak izango ditu ardatz. 11:00etatik 13:30era bitartean gerturatu ahako dute herritarrek aretora.

Horrez gain, dokumental bat proiektatuko dute Elurtza tabernan, 12:30ean. Tea edateko aukera ere edukiko dute ekitaldira joaten direnek.

Saharako Lagunak taldeak aipatutako ekintzetan parte hartzerantz animatzen ditu lasarteoriatarak.

### SEADen erreferenduma egiteko kanpaina

Otsailaren 11n agerraldia egin zuten Saharako Lagunak taldeak eta udaletxeko korporazioko hainbat alderditako ordezkariak, Villa Mirentxun. Mendebaldeko Sahararen erreferenduma egiteko kanpaina baten berri eman zuen taldekide Tomas Arrutik.

Suitzako talde batek bul-tzatuta, firmak bilduko dituzte, 2017. urtea amaitu aurretik galdeketa egitea posible izan dadin. Egitasmoari babes simbolikoa emate aldera, hatzak



Otsailaren 11ko agerraldian iragarri zituzten aste honetarako ekintzak.


urdiraz margotu zituzten agerraldira joandakoek.

Arestian aipatutakoaz gain, agerraldian "SEADeko gobernu legitimoa eta Frente Polisarioaren zilegitasuna" aitortu

zituzten, eta baita saharar herriaren autodeterminazio eskubidea. Maroko agintariek galdegin zieten bertan behera uztea "saharar aktibisten aurkako jazarpena".

### Diruz laguntzen duten erakundeak

#### Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

#### Laguntzailea



#### Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557  
**Legezko gordailua:**  
SS513/93  
**ISSN:** 1134-0053  
**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
**Aleak zenbakiko:** 7.800

#### txintxarri

#### Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso,  
Inigo Gonzalez.

**txintxarri@txintxarri.eus**

**Publizitatea:** Arantxi Zulaika  
**publizitatea@ttakun.eus**

#### Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Maider Segurola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Edu Galardi

#### Informatikoa:

Xabier Amadoz

## OPERA PROIEKZIOA



Kaufmann Scala Antzokian.

ARG: jonaskaufmann.com

## Puccini maisuarekin larunbat arratsaldea

'Una tarde con Puccini' proiektatuko dute kultur etxean

**Giacomo Pucciniren obrak entzuteko aukera egongo da larunbatean Manuel Lekuona kultur etxean. Jonas Kaufmann tenoreak Milango Scala antzokian emandako erakustaldia proiektatuko dute 20:00tan.**

## TXINTXARRI

Opera zaleek galdu ezin duten zita dute larunbatean Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioan. Izan ere, 2015eko ekitaldi garrantzitsuenetakoa bat proiektatuko dute.

Jonas Kaufmann tenore alemaniarrek Milango Scala antzoki mitikoan emandako kontzertuak zeresan handia eman zuen komunikabide italiarretan. Bost 'bis' abestu zituen, eta 40 minutuko txalo

zaparrada jaso zuen. Gurera ekarriko dute aste honetan bertio digitalean.

**Puccini**

Giacomo Puccini operagile italiarraren obrak interpretatu ditu Kaufmann-ek. Besteak beste, zeharo ezagunak diren 'La Bohème'-n, 'Madama Butterfly'-en eta 'Turandot'-en zatiak.

Horien artean, Luciano Pavarottik, Jose Carrerarek eta Plácido Domingok hainbatetan abestutako 'Nessun

Dorma'.

Tenore alemaniarrek azaldu zuenez, urte askotan ez da obra hori "abestera ausartu". Izan ere, 'Hiru Tenoreek' utzitako muga oso goian jarri zuten.

Abestean, oraindik ere, emozionatu egiten dela nabarmendu zuen Kafumane.

**Sarrerak**

Aldez aurretik erositako sarre-  
rek 7,5 euroko kostua izango dute. Egunean bertan hartuz gero, aldiz, 9 eurokoa.

Pasea lehenago hartu nahi duenak Manuel Lekuona kultur etxeko lehiatilan egin beharko du larunbata iritsi aurretik.

## Txurrukara irteera Aste Santuan

Gazte Klubeko gaztetxoak Txurrukako aterpetxean, Orion, igaroko dituzte hiru egun Aste Santuan.

LH3 eta LH6 bitarteko haur-  
rentzat zuzendutako ekintza da (2007 eta 2004 artean jai-  
takoentzat), eta martxoaren 16ra arte eman ahalko da izena.

Ttakun Kultur Elkarteko bazkideek 48 euro ordaindu beharko dituzte eta besteek 51.

**Ordaintzeko modua**

Txartelarekin ordaindu beharko da Ttakun Kultur Elkarteko bule-  
goan. Bestela, Kutxabankeko 2095-5048-18-10611552351 kontuan egin daiteke diru sarre-  
ra.

Ondoren, izen emate orria eta diru-sarreraren ordainagiria



Lehenago urtean Larraulen izan ziren Gazte Klubeko gaztetxoak.

erakutsi beharko dituzte.

Martxoaren 16an bilera egingo dute gurasoekin anbulategiko 2. solairuan arratsaldeko 17:30etan, txangoaren nondik norakoak azaltzeko eta azal litezkeen zalantzak argitzeko.

Gaztetxoak 21ean dira ateratze-  
tzeoak goizeko 11:00etan Jubi-

latuen etxeko autobus geltokitik, eta 23an bueltatuko dira 13:00etan.

**Oharrak**

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, gaztetxoek lehenengo eguneko bazkaria eta afaria eraman beharko dute.

## IKASTAROA

### Enpresak sortu eta kudeatzeko ikastaroa astearte eta asteazkenean

Lanbidek, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz, enpresak sortu eta kudeatzeko ikastaroa antolatu du martxoaren 15ean eta 16an. Doainik izango da, eta Andoaingo Urigain Etxean emango da.

Bi txanda egingo dituzte. Goizez 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 15:00etatik 19:00etara.

Informazio gehiago Lanbideko bulegoetan, 943 304 221 telefonoan eta [ekinean@andoain.org](mailto:ekinean@andoain.org) posta elektronikokoan.

## IKASTAROA

### Elikagai manipulatuak ikastaroa, Elkolab enpresaren eskutik

Lasarte-Oriako Udaleko Osasun sailarekin elkarlanean, Elkolab enpresak elikagai manipulatuak ikastaroa antolatu du. Ostalaritzan aritzen diren langileei zuzendutakoa da, batez ere.

Otsailaren 24ean emango da anbulategiko bigarren solairuan, erabilera anitzeko aretoan. Langileek 45 euro ordaindu beharko dute izena emateagatik eta langabetuek 35. Azaldu dutenez, 'erregimen orokorreko' langileek bonifikaziorako eskubidea dute.

Ordutegia goizeko 09:30etatik 13:30etara izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, OMIC-en edo Elkolab-en telefonoetara deitu daiteke (943 36 15 05 edota 943 53 33 03).

## MANIFESTAZIOA

### Elebeltzen aldeko manifestazioa deitu dute ostegunean

Elebeltzen Aldeko Plataformak manifestazioa deitu aste honetako ostegunerako. Okupazioa aldarrikatuko dute 20:00tan Okendo plazatik aterako den manifestazioan.

Deialdian nabarmendu dutenez, "Udalak ez du nahi antolatutako herria". Horregatik, "festa libreen, aniztasunaren, koloreen eta mugimenduaren" alde manifestatzen deitu dituzte herritarrek.

Zenbait eragilek, Elebeltzen Aldeko Plataforma osatzen dutenak, bere atxikimendua eman dute. Besteak beste, alderdi politikoak (Bildu eta Sortu), sindikatuak (ELA eta LAB), Lasarteko Gazteak, Xirimiri Libre, Sorgin Jaiak, Parapetasonik, LEF, Rezibatukada, zenbait musika taldek eta herriko hainbat tabernek.

Hilaren 9ko Udalbatzarrean Udal ordezkariak adierazitako hainbat argudioren aurka azaldu dira. Adibidez, 'Madrid Arena' kasuarekin konparatu izanaren kontra.

## LANDABERRI IKASTOLA

### Logo eta lelo proposamena

50 urte dira Landaberri ikastola eratu zenetik. Urteurren berezi hau prestatzeko lanetan da eta urrezko eztei hauetarako logo eta lelo baten bila dabil.

Landaberri herritarrek gonbidatzen ditu haien proposamenak egitera. Martxoaren 16ra arte izango da haien marrazki, irudi eta testuak bidaltzeko epea. Hauek [landaberri50@gmail.com](mailto:landaberri50@gmail.com) helbidera bidali edo ikastetxe bakoitzean entregatu beharko dira.

## LANA

### Langabeak kontratatzeko dirulaguntzak

Lanbide eta Buruntzaldeko Udalek elkarlanari esker, eskualdeko nahiz inguruko enpresek langabeak kontratatzeko dirulaguntzen bigarren fasea hasi da.

Guztira, 11 kontratu diruz laguntzeko aukera dago. Dirulaguntza lanaldi osorako bada 3.000 eurotako izango da; lanaldi erdira izanik, aldiz, 1.500 eurotako.

Kontratuen iraupena gutxienez 3 hilabetekoa izan behar du. Kontratazioak abian jartzeko epea martxoaren 1ean amaitzen da eta martxoaren 31 bitartean izango dute aukeran enpresek dirulaguntza eskaera egiteko.

Dirulaguntza eskaerak, Andoaingo udaleko Enplegu lan-sailean aurkeztuko dira. Informazioa eskuragarri dago eskualdeko udaletxe bakoitzean bai web orrian baita enplegu arloko lansailatan edota bulegoetan ere.

# Hitzaldia eta martxa errausketaren aurka

Asteazkenean, OEIT taldeko kideek errauste planta eta osasunari buzu mintzatuko dira

Errausketaren aurkako mugimenduak bi hitzordu garrantzitsu ditu aste honetan. Batetik asteazkenean, Lasarte-Oriako Aire Garbia plataformak antolatuta Osasuna eta Errausketa Ikerketa taldeko kideek 'Errauste planta eta osasuna' hitzaldia eskainiko dute. Igandean, berriz, errausketaren aurkako beste taldeekin batera martxa egingo dute erraustegia eraiki nahi den eremura. Herri ezberdinetatik aterako dira taldeak eta Lasarte-Oriako herritarrek, 10:30ean, Okendo plazan dute bilgunea.

## TXINTXARRI

Gipuzkoako Foru Aldundiak Zubietako gainetan erraustegia egiteko asmoa agertu du berriro. Horregatik, hondakinen errausketaren kontra eta Zero Zabor ereduaren aldeko taldeek igandean errausketaren aurkako martxa antolatu dute. Hitzordu honen aurretik, asteazkenean, errausketak osasunarengan duen eragina jakinarazteko hitzaldia egongo da Manuel Lekuona kultur etxean.

### Errauste-planta eta osasuna

"Badakizu Gipuzkoako mediku talde batek eskatu duela zuzenaren printzipioa aplikatzeko eta Zubietako errauste-planta ez egiteko?". Galdera honekin hasten da Aire Garbia plataformako kideek aste honetan Lasarten barrena buzoneatzen ari diren orritxoan.

Orritxo honen helburu nagusia datorren asteazkenean izango den hitzaldiaren berri ematea da.

'Errauste-planta eta osasuna' hitzaldia Manuel Lekuona kultur etxean egingo da, arratsaldeko 19:00etan etan, eta bertan Osasuna eta Errausketa Ikerketako Taldeko kide diren hiru medikuk hartuko dute parte: Iñigo Suberbiolak, Maialen Berridik eta Joxerra Furundarenak.

Mediku talde honek, Europa osoko hainbat ikerketa

aztertu ondoren, ondorioztatu du errauste-plantek isurtzen dituzten gasek eta hondakin toxikoek zuzenki kaltetzen dutela gizakien osasuna eta horrela jakinarazi zuten otsailaren 2an, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean egingo dako prentsaurrekoan.

Ikerketen arabera, errausategiekin sortzen dituzten metal astun, dioxina, furano, poliklorobifenilo eta benzopirenoek tumoreak, malformazio kongenitoak, alterazio hormonalak eta biriketako gaitzak eragiten dituzte. Errauste-plantetatik hamar kilometrora bitartean bizi diren pertsonak aukera gehiago dituzte biriketako, gibelko, laringeko, hesteetako, sabeleko eta bestelako minbizioak izateko.

Beraz, Suberbiola, Berridi eta Furundarena errausketak gure osasunean duen ondorioez mintzatuko dira asteazkeneko hitzaldian.

### Martxa Zubietara

Bestetik, Errausketaren kontrako Mugimenduko martxa antolatu du otsailaren 28an Zubietara, zehatz-mehatz, Foru Aldundiak erraustegia eraiki nahi duen parajeraino bertaraino.

Lelo nagusia edo ekimen honen oinarrian dagoen filosofia 'Burua duenak ez du erraustegirik nahi bere herrian, eta bihotza duenak ez du beste inoren herrian nahi' da. Lasarte-Oriako Aire



Errausketaren kontrako Mugimenduko kideek otsailaren 13an, Errausketaren aurkako martxa aurkeztu zuten Zubietan.

Garbia plataformak martxan parte hartzeko dei egin du.

Martxa hainbat herritatik abiatuko da eta parte-hartzailerak bidean topatzen joango dira. Azkenean, edonondik abiatu direla ere, denek bat egingo dute 12:00ak aldera, Letabiden, Aldundiak erraustegia eraiki nahi duen lekuan, alegia.

Gero elkarrekin jaitsiko dira. 13:00ak aldera, Zubietako frontoian, martxa burutzeko ekitaldia izango da.

### Adar ezberdinak

Aire Garbia plataformak jakitera eman duenez, momentuz konfirmatuta dauden abiatze-hitzorduak hauek dira:

- Andoain, merkatuan, 8:00etan
- Zizurkil, plazan, 8:00etan
- Hernani, Gudarien plazan, 8:30ean
- Añorga Txiki, 9:30ean
- Lasarte-Oria, Oken-don, 10:30ean
- Zubietara, plazan, 11:00etan
- Usurbil, frontoian,

11:00etan

Era honetara, adar ezberdinak sortu dira inguruko hainbat herritatik.

Hitzordu edo parte-hartzaileen elkargune nagusiak bat izango da Lasarte-Oria. Izan ere, gure herrian Hernanitik zein Donostiatik datozen marxistak batuko baitira. Beste Zubietara izango da.

### Testuingurua eta balorazioa

Foru Aldundiak erraustegi-proiektua berpiztu du eta, ondorioz, horren kontrako oposizioa ere aktibatu egin da.

Joan den urtarrilean, erraustegiaren mehatxuari aurre egiteko hainbat talde eta pertsona bildu ziren Zubietan: talde eskarmentudunak eta sortu berriak; Zubietatik gertu bizi diren pertsonak eta urrutixeago bizi direnak. "Izan ere, arazo hau Zubietako ingurukoei soilik axola zaiela uste dutenak oso-oso oker baitaude", azaldu dute Aire Garbiako kideek.

Talde eta pertsona ezberdinak bildu ziren bertan baina oinarritzko ideia pare batean, behintzat, guztiz bat etorri ziren.

Lehenengo ideia da erraustegia pertsonen osasunerako zein ingurumenerako arriskutsua dela.

Bigarrena, errausketak, sistema garestia izateaz gain (horren adierazle bat baino ez da Hondakin Kontsorzioak tarifak % 20 garestitzeko hartu berri duen erabakia), errotik galarazten duela biziklatze-bidean eta ekonomia zirkularreko bidean aurrera egiteko aukera.

Baina, oinarritzko bi ideia horietatik aparte, bada batzen dituen uste sendo bat Erraus-

ketaren kontrako Mugimenduko kideek aipatu dutenez, "elkarrekin arituz gero, erraustegi-proiektua berriro bide bazterrean utz dezakegu, oraingoan behin betiko utzi ere".

Mugimenduen iritzi, "uste sendo honek berebiziko garrantzia du. Izan ere, Foru Aldundiak behin eta berriro sinestarazi nahi digu alferri ari garela, "hau" nahitaezkoa dela, atzeraezina; hemendik pixka batera proiektua esleitu-ko duela, geroxeago lanak, eta lau urte barru erraustegia halabeharrez martxan egongo dela, tximiniatik kea dariola. Mezu hauek amore eman dezagula dute helburu".

"Oso zaila dute, ordea, lehen ere askotan entzun ditugulako, erraustegia Zaldunbordan eraiki nahi izan zutenean, eta gero Landarbasoan, eta Urnietan, eta Aritzetan... Kasu haietan ere 31 zituztela eta esku zeudela uste zuten. Partida galdu zuten, ordea. Orain orduko lelo bertsuarekin datoz, eta, kasu haietan zer gertatu zen ezagututa, pentsatzen hasita gaude guk amore eman dezagun baino gehiago ez ote duten leloa behin eta berriro errepikatzen beraien buruari amore emateko, "oraingoan bai" sinesteko beharra balute bezala," azpimarratu dute Mugimenduko kideek.

"Nolanahi ere, guk bada-kigu partida ez dela inola ere bukatu, eta elkarrekin jokatzea erabaki dugu. Otsailaren 28ko martxa horren ondorioa baino ez da," jakitera eman dute.

Era berean, errausketaren aurka dauden inguruko herritar guztiak gonbidatu nahi izan dituzte martxan parte hartzera.



Bost urte dira Iñigo Suberbiola herritarrek eta Julia San Josek herrian errausketa eta osasunari buruz hitz egin zutela.

# Gerra Zibileko lubaki eta aztarnak aztertzen

Islada Ezkutatuak taldeko kideek inguruetan egindako aurkikuntzak erakutsi dituzte

**Txaldataxur mendixkara txangoa egin zuten igande goizean zenbait herritarrek Islada Ezkutatuak taldeko kideekin batera. Eguraldia lagun, Gerra Zibileko aztarnak ikusi zituzten, Joxe Agustin Muguruzaren azalpenak lagunduta. Orain arte egindako aurkikuntzak partekatu zituzten eta datorren urteetara begirako erronkak azaldu.**

## TXINTXARRI

**G**oizeko bederatzietan elkartu ziren hogeitamar herritar inguru Okendo plazan. Igande goizeko eguraldi bikaina baliatuz, botak jantzi eta Txaldataxur mendixkarako bidari ekin ziren.

2015eko ekainean antzeko txangoa antolatuz zuten Islada Ezkutatuak taldeko lagunek, baina oraingoan azalpenak gaztelan eman zituzte.

Lehenik eta behin, Gerra Zibilearen nondik norakoak azaldu zituzte. Azpimarratu dute, askotan aipatu izan den arren, ez zela "anai-arreben arteko gerra" izan, "estatu kolpea" baizik.

Izan ere, "historia azaltzeko estrategiak erasotzaileak eta erasotutakoak egon zirela isilean gorde du".

### Gerra Lasarte-Orian

Lasarte-Oria Gerra Zibileko 'Iparraldeko kanpainan' "estrategikoa" izan zela aipatu du Islada Ezkutatuak taldeko kide Joxe Agustin Muguruzak.

Batetik, herriak duen kokapen geografikoagatik. Kostako errepideak eta errepide nazionalak bat egiten duten gunean dagoelako.

Bestalde, industria herria izateak gerra garaian baliotsu bihurtu zuen Lasarte-Oria. Fabriketan baliabideak zituzten eta kualifikatutako langile ugari -torneatzaileak, fresatzaileak, etab. - zeuden.

1936ko abuztuaren eta irai-

lean erasotu zituzten Lasarte-Oria eta inguruak. Gehienbat, Teresategi, Santa Barbara, Andatza edota Txaldataxur mendietatik defendatu behar izan zuten herria. Nazionalak Andoain eta Buruntza hartzean irudikatu zuten nondik etorriko ziren.

### Batzuen eta besteen lubakiak

Txaldataxur gainean zenbait lubaki aurkitu zituzte Islada Ezkutatuak taldeko kideek. Muguruzak azaldu duenez, Nazionalen eta Errepublikarren guneak arrastoengatik desberdindu daitezke. Badute, behintzat, horren susmoa.

Armada Nazionala "gorpu militarizatu eta entrenatua" zen. Azken batean, "1934tik gudarako prestatzen" zihardutela nabarmendu du Muguruzak.

Horregatik, aurkitutako arrastoak, armak, balazorroak eta janari latak itxura homogeneoa dute. Hau da, gudaroste profesional batek utziko lituzkeen tankera hartu diote euren lubakietako batean aurkitutako arrastoei.

Balitzko lubaki errepublikarrean, aldiz, "denetarik" topatu omen dute. Mota guztietako armak, eta horien artean inon ikusi ez dituzten batzuk ere. Muguruzak azaldu duenez, "baliteke Brunet lantegian eginak izatea".

Kontuan hartu behar da gudaroste errepublikarrak jatorri eta ideologia askotako pertsonak osatu zutela, eta gutxi-



Joxe Agustin Muguruzak lubakien egitura eta bertan aurkitutakoak azaldu zituzten bertaratutakoak.

zutela esperientzia militarra. Horregatik, munizio eta hornidurak halamoduzkoak ziren.

Halaber, topatutako material guztia ez da Gerra Zibilekoa. Zaharragoak diren armak ere aurkitu zituzte, seguruenik hirugarren Karlistadetakoa.

Dena den, horiek baztertu egin zituzte. Izan ere, Gerra Zibileko aztarnekin egiten dute lan soilik.

### Txaldataxurgo erpina

Gaur egun zuhaitzek ondo ikusten uzten ez badute ere, Txaldataxur gainetik inguruko herrietako 360 graduko bista zoragarria zegoen 30eko hamarkadan.

Errepublikarrek erpin formako lubaki defentsa antolatuz zuten Candido Sasetaren gidaritzapean.

Joxe Agustin Muguruzaren aburuz, "erasotzeko oso zailak ziren", angelu asko kubritzen baitzituzten. Bestalde, "defen-

datzeko nekezak" ziren. Izan ere, errekurtsio ugari behar ziren behar bezala egin ahal izateko.

Txaldataxurgo gainean izan dira lasarteoriatarrek lubakiak, biltegiak eta bestelakoak ikusten. Azalpenak amaitzean, hamaiketakoak jan dute umore onean.

### Hobien bila

Islada Ezkutatuak taldeko lagunek jasotako testigantzen arabera, baliteke inguruan hobiak egotea.

Horiek aurkitzea da gaur egun taldeak bere buruari jarritako erronka. Orain arte arrastorik ez dute topatu, baina Muguruzak dioenez "kosta egiten da leku zehatza topatzea". Hori dela eta, bila jarraituko dutela diote.

Halaber, nabarmendu dute gune asko daudela garbitzeko eta ikertzeko. Orain arte aurkikuntza ugari egin badituzte ere, gehiago egotea espero dute.

Horretarako, elkarlanerako deia luzatu dute. Asteartero elkartzen dira Manuel Lekuona kultur etxean, eta interesatuta legokeen edozeinek "ateak ire-

kita ditu".

Azaldu dutenez, "lan handia" egin behar izan dute urte hauetan ingurua garbitu eta aztarnak miatzeko, baina "gauza asko ikusi dituztela" nabarmendu dute.

Historia zenbait eratarik kontatu da, eta Islada Ezkutatuak taldearen helburuetako bat gertatutakoak ahal den neurrian ezagutzeko da.

Ehuneko ehuneko ezer ziurtatzea zaila da. Muguruzak aitortu duenez, "gerran galtzen den lehenengo gauza Egia da".

Hala ere, lanean jarraituko dute; 1936ko estatu kolpea eta haren ondorioak Lasarte-Oria eta inguruetan aztertzen.

### Eskertza ekitaldia

Urtero egiten duten moduan, aurtengo ere Islada Ezkutatuak taldearekin batera lanean aritu diren herritarrek eta euren testigantzak partekatu dituztenak eskertuko dituzte.

Jakinarazi dutenez, martxoaren 6an, Lasarte-Oriako Udalbatzar aretoan egingo dute eguerdiko 12:00tan.

2015ean lagundu duten kideek oroigarri bana jasoko dute.



Basotxotik inguruko mendietan Gerraren garapena azaldu zuen Muguruzak.



**ADURIZ DE LASARTE, S.A.**

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51

## FUTBOLA.-

## Azken hauspoan etorri zen garaipena

Ostadar SKTek 3-2 menperatu zuen Euskalduna, azken minutuetan Britek lortutako golari esker

Ohorezko Erregionala bolada txarrean zen. Azken bost partiduetan puntu bakarra lortu ostean, irabazteko beharrean zen Euskaldunaren aurka. Medinaren mutilak baloiaren jabe izan ziren, baina kostata lortu zituzten hiru puntuak zortzi jokalarirekin bukatu zuen Euskalduna taldearen kontra. Hurrengo jardunaldian, Mutriku izango dute aurkari San Migel futbol zelaian.

## TXINTXARRI

Behar zituen Ostadar SKT-ek hiru puntuak. Hilabete baino gehiago zeramaten Medinaren mutilek garaipena erdietsi gabe, eta azkenik, Euskalduna menperatu zuten larunbatean Mitxelinen.

## Ostadar nagusi lehen zatian

Joko ikusgarririk egin gabe, gehiago izan zen Ostadar partiduko lehen minutuetan. Gorka Briten gola bertan behera utzi zuen epaileak, ustez, jokoz kanpo zegoelako.

Ez lasarteoriatarrek ezta andoaindarrek ere ez zuten aukera askorik eduki lehen zatian, baina Ostadarrek ireki zuen markagailua epaileak atsedendia seinalatu aurretik.

Ederki jaurtitutako falta Sergio Barquerok errematatu zuen bigarren zutoinean. Euskaldunako jokalarien ustez, denboraz kanpo etorri zen gola, baina epailearentzat balekoa izan zen.

## Bigarren zati eroa

Hasi eta berehala handitu zuten abantaila urdinbeltzek. Ezker hegaletik landutako jokaldi baten ostean, atzelari andoaindar batek bere atean egin zuen gola.

Ostadarrek kontrolpean zuen partidua, eta Euskaldunako jokalaria bat kanporatzean, ez zirudien andoaindarrek markagailuari buelta eman ziezaioketenik.

Baina ez zen hala izan, hamar minututan bi gol egin baitzituzten. Eskuin hegaletik lehena, eta penaltiz bigarrena.

Asko zaildu zitzaion parti-



Britek egin zuen garaipenaren gola.

dua Ostadarri, nahiz eta hamarren aurka aritu. Handik gutxira etorri ziren andoaindarren beste bi kaleratzeak.

Esan beharra dago ez zela partidu beroa izan, eta txartel gorriak nahiko zorrotzak izan zirela. Andoaindarrak ez zeuden pozik epailearen eta bere laguntzaileen lanarekin.

Zortziren kontra Ostadar baloiaren jabe zen, baina kosta egin zitzaion aukera garbiak sortzea. Hegaletatik min egiten

saiatu ziren Medinaren mutilak, baina zehaztasuna falta izan zitzaien.

Euskaldunak kontraerasoan aukeraren bat ere izan zuen aurretik jartzeko, baina ezin izan zuten lana amaitu.

Partiduaren azken hauspoan etorri zen saria Ostadar SKT-rentzat. Ezkerretik iritsitako erdiraketa maisuki bukatu zuen Gorka Britek.

Hortaz, hiru puntuak Lasarte-Orian geratu ziren, eta

urdinbeltzek arnasa hartu dute denboraldi amaierari gogor ekin ahal izateko.

## Hurrena, Mutriku

Partidu gogorra dute Medinaren mutilek hurrengo astean. Mutriku hirugarren da, Ostadarrek baino lau puntu gehiagorekin. Irabaziz gero, berriro ere gertu izango lukete brontzezko postua, Tolosak eta Anaitasunak alde egin dutela dirudien arren.

## PILOTA.-

## Intza KE-ko pilotariak sendo

Asteburua ona izan da Intza KE-ko pilotarien-tzat. Izan ere, jokaturako partidu guztiak irabazi dituzte.

## Lehen mailakoak finalerdietara

Udaberri txapelketan indartsu dabil Intza. Fase erregularreko partidu guztiak irabazi ostean, Azpeitiko Ilunpe klubeko bikotearen aurka lehiatu ziren Jon Pello Artetxe eta Mikel Elola.

Lan erdietara arte nor-gehiagoka borrokatua izan zen. Artetxek eta Elolak gehiago asmatu zuten bigarren zatian, eta azpeitiarrek behar baino pelota gehiago galdu.

22-13ko emaitzarekin finalerdietan izango dira. Hernani eta Antiguaren arteko partiduko irabazlearen aurka lehiatuko dira ondoren.

Mitxelingo frontoietik



Finalerdietan Hernani eta Antiguaren arteko garailearen aurka arituko dira.

kanpo lortu beharko dute finalerako txartela. Izan ere, zozketan hala egokitu da.

Bigarren mailako txapelketan izan ostean, beste txapel bat irabazteko aukera dute orain Intza KE-ko pilotariak.

Bigarren mailako txapelketan, bigarren garaipena lortu zuten Gorka Mendizabalek eta Aritz Solanok. Aurrera Saiaz talde tolosarra zuten

aurrean, eta 22-10eko emaitza sendoa lortu zuten.

Azken jardunaldian Eibarraren jokatzeari egokitzen zitzaie, baina erretiratutako taldea izanik, ez da partidurik egongo eta Intzarentzat izango da garaipena.

Dena den, zaila dute hurrengo faserako sailkapena. Izan ere, beste lau talderekin lehiatu beharko dute.

## HERRI KIROLAK.-

## Josetxo Urrutiak erronka bota dio Urtzi Telleriari abendurako, pisu bikoitzeko harriarekin

Abendurako hainbat hilabete falta dira oraindik, baina egutegian apuntatu behar da jada hitzordu garrantzitsu bat: Josetxo Urrutiak Urtzi Telleriari herritarrari bota dion erronka, abenduaren 3rako. Harrijasotzaileak dira biak, era guztietako harriak altxatzen iaioak. Erronka horretan, pisu bikoitzeko harri erretangularra dominatu beharko dute biek; sei minutuko hiru tantatan harria gehiagotan altxatzen duenak irabaziko du.

Apustua ez da nolana hiko: bakoitzak 3.000 euro jarriko ditu mahai gainean. Arestian esan bezala, abenduaren 3an ariko dira biak, 18:30ean. Tokia zehazteke dago oraindik.



JOSEBA OSTOLAZA

## IPAR MARTXA.-

## Ipar Martxa modalitateko hastapen ikastaroak

Ostadar SKTk kirol diziplina berri bat gehitu du aurrean: Ipar Martxa edo Nordic Walking delakoa. Jendartean gero eta ezagunagoa bilakatu denez, Ostadarrek hastapen ikastaro bat prestatu du herritarrentzat. 25 euro balio du; sei-zortzi pertsona bideratuko dira talde bakoitzera. Hiru egunetan egin ahal da: asteazkenera 9:00etatik 12:00etara, 16:00etatik 19:00etara ostegunetan edo 10:00etatik 13:00era larunbatetan. Ostadarren bulegoan eman daiteke izena edo, bestela, 943 36 04 33 telefonora deituta edota [ostadar@ostadarskt.eus](mailto:ostadar@ostadarskt.eus) helbide elektronikora idatzita.

## Agenda

Astearte, 19:00etan, Furia Beltza



### Sahararen egoera aztergai

Lasarte-Oriako Saharako Lagunak taldeak Saharako Errepublikar Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zeneko 40. urterenean hianbat ekintza antolatu ditu aste honetan. Lehena Hassana Aalia aktibista sahararren hitzaldia dugu. Honek saharar herriak bizi duen egoera azalduko du. Aalia bizitza osoko kartzelara zigortu zuen Marokoko auzitegi militar batek 2011n Aaiun-en izandako gertaeren ondoren militante

sahararren kontra abiatutako auzian. Euskal Herrian zegoela jaso zuen zigorraren berri eta geroztik bertan geratu da bere eta gainerako sahararren egoeraren berri ematen. 2015 urte hasieran, Espainiak asiloa ukatu zion. Urrian Espainiako poliziak antzeman zuen eta kaleratze espediente hasi zuen. Hainbat mobilizazio egin ziren Estatu osoan atxiloketa honen aurka eta CEAR-Euskadik aske uztea lortu zuen.

rrenean, elkarretaratzearen ostean, Saharari buruzko dokumentala eta tea eskainiko dira.

ANTONIO MERCERO ARETOA

Larunbata 27, 11:00etatik 13:00etara  
Garikoitz Lasa donostiarrak errefuxiatu guneetan ateratako irudien erakusketa izango da ikusgai.

### Proiektzio digitala

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 27, 20:00etan

Puccini konposagilearen hainbat ariaz Jonas Kaufmann tenorearen ahotsean gozatzeko aukera izango da, 'Una noche con Puccini' emanaldiaren proiektzio digitalean. Sarrera, 9 euro. Aurresalmenta, 7,5 euro.

### Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 28, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, 'Alvin y las ardilla: Fiesta sobre ruedas' animaziozko filma ikusgai izango da. Sarrera, 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 28, 19:30etan

Helduentzako zinea atalean, 'El renacido' filma ikusteko aukera izango da. Sarrera, 5,50 euro.

### Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIAN

Otsailean zehar

Arantza Agirre segurarraren olio lanak ikusgai izango dira. Teknika ezberdinekin margotutako lanak dira erakusketan aurkeztutakoak.

### Lasarte-Oria

#### Itsaspeko Zinema Zikloa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena, 19:30ean

Itsaspeko zinema zikloaren azken saioan, film labur bat eta 'Arrecifes' film luzea ikusiko dira.



#### Lasarte-Oriatik mundura

XIRIMIRI ELKARTEA

Asteazkena, 19:30ean

Irati, Ane, Ainhoa eta Urdiñek Kubara

egindako bidaia azalduko dute argazki diaporama bitartez. Bitartean, merienda kubatarra dastatu ahalko da.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 26, 19:00etan

Urte askotan Askapeneko brigadista izandako eta EHUKo irakasle den Luis Ugartek 'Cuba: kokapen historikoa eta gaur egungo egoera' hitzaldia eskainiko du.

### Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteazkena, 19:00etan

'Errauste-planta eta osasuna' hitzaldia eskainiko dute Iñigo Suberbiolak, Maialen Berridik eta Joxerra Furundare-

nak, Osasuna eta Errausketa Ikerketako Taldeko kideek. Aire Garbia plataformak antolatua.

### Andaluzia eguna

SEMBLANTE ANDALUZ

Ostirala 26-Igandea 28

Semblante Andaluz elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu asteburuan zehar otsailaren 28an ospatzen den Andaluzia Erkidegoko egunaren harira.

### Saharar Errepublika

ELURTZA TABERNA

Larunbata 27, 12:30ean

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zeneko 40. urteu-

## Herritarren txokoa

### Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren omenezko meza ospatuko da, otsailaren 24an, asteazkena, arratsaldeko 17:00etan.

### Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean Otsailaren 29an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitezte, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

### Biyak Bat bidaia

Biyak-Bat jubilatuen etxeak Sevilla eta Cacereserako bidaia antolatu du maiatzaren 20tik 29ra.

Hilabete bereko 27tik ekainaren 5era antolatuta zen beste bat, baina autobusa bete da dagoeneko. Interesatuak izena eman beharko dute astelehenean ostiralera 10:30etatik 12:30etara.

**Zuen oharrak jarri, kezak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48  
txintzarri@txintzarri.eus

### Eskutitza

## Aurretik iragarrita zegoen zirku baten biografia

Gipuzkoako zaborren auzian, batez ere 2008tik elementu argiak falta dira, informazioa modu ezberdinetara baitatorkigu.

2008an EAJk onartu egin zuen materia organikoaren biltzea bikoiztea (%4tik %8ra), IU-EBk eskatu zuen bezala. Zin egin zuen, Zaldunbordan (Irun) eta Sasietan konpost planta bana martxan eduki nahi zituela, 2010erako, Lapatzeko txikia baitzen ordurako. 2008 Garapen Planean jaso zuen, Pigrug-2.002aren osagarri bezala.

2011an, Gipuzkoako Aldundian gobernu aldatu zen, eta bizkaitarrek 2007tik errausteko bildaltzen errefusa hartzeari uko egiten zioten. Arazo horrekin, EH Bilduk, zenbait herritan, zabor biltzea sistema berria ezarri zuen, kontenedore handiak kenduaz. Honek errefusa 4 aldiz gutxituko zuen, eta ustelkiak 10 bider haunditu. Beste herri batzuetan, errefusa biltzen zuten kontenedore handien erabilera mugatu zuten. Biek inurugiroarentzako emaitza oso onak lortu ziren, baina oso txarrak errauskailuaren negozioarako.

2015 urtean, Gipuzkoako Foru

Aldundiako gobernu aldatu egin zen berriz ere, eta EAJk errefusaren kontenedore biltzeari itzultzea babesten zuen; hala, Pasaia bezalako herrietako zaborte-gietara iristen den frakzioa bikoiztera iritsi da. Kontenedoreak bai, baina ahalik eta handienak, zaborraren biltzea eta kudeaketaren inguruan dagoen negozioa, kamioi handiak dituztenentzako bakarrik izan dadin.

2016an gainezka egingo duela aurreikusirik, Urola Erdiako Mankomunitateak Lapatzeko zaborte-gian besteen errefusa onartzeari utzi egin dio. Ondorioz eta «beste alternatibarik gabe», GHK-k Kantabriara exportatzea erabaki du (egunero 25 kamioi). Gogoratu lehenago EAJk kritikatu egiten ziola EH-Bilduri Funesera eramatea ustelkia konpostatzea (eguneko 2 kamioi). Jeltzaleak 2010erako eraikonpost plantak eraikitzeak ziren Gipuzkoan, ez ziren ordea eraiki.

Asensio jaunak Urola Erdiako Mankomunitateari elkartasuna eskatzen dio, erreparatu gabe Arrazako TMB plantan gipuzkoar errefusa onartu nahi ez duenetik EAJk sortu duen zirkua.

Arazo tekniko bat ala arazo politiko bat, Asensio jaunak? Elkartasuna ala konplizitatea ari zara exijitzen Urola Erdiako Mankomunitateari?... Zuen arazo politiko bat dela esango nuke, batez ere hain hurbil daudenean Gasteizko parlamenturako hauteskundeak. Hobari eta penalizazio bidez, erreala bihurtuko da Oregi kontseilariaren mantra birtuala: «kutsatzen duenak ordainduko du».

PNVek behartu zuen EH Bildu organiko Funesera exportatzera; eta EH Bilduk PNV errefusa Kantabriara exportatzera... Baina zertan bihurtzen da organiko? Eta zertan bihurtzen da errefusa? Zer eragin dauka batek eta besteak ingurumenean? Eta baten eta besteen kudeaketak zer urrats ekologikoa uzten du? Zenbatean eta zeinek baloratu behar du bat eta beste? Politikoki eta ekonomikoki? Zergatik Kantabriara bidali, Bizkaian kudeatzeko dituzten orniturak denon artean ordaindu baditugu? Non daude iritzia daukaten gipuzkoar azkoen ahotsak? Guzti hau lotsagarria da gizartearentzat.

Iulen Lizaso Aldalur

Iñaki Petxarroman Idazlea

# “Istorioa fikzionatu beharra zegoen”

Argitaratu berri duen ‘Kearen fiordoa’ lehenengo eleberria du Petxarromanek

Islandiara egindako bidaiak eman zion Iñaki Petxarromani baleazaleei buruz eleberria idazteko ideia. XVII. mendean 32 euskaldunen hilketaren berri izan zuen eta istorioari heltzeko erabakia hartu zuen lasarteoriatarak. Dokumentatzeari ekin zion eta, urtebete beranduago, liburudendetan eskuragarri dugu ‘Kearen fiordoa’, Elkar Argitaletxearen eskutik.

MARTIN VICIOSO

Seigarren liburua du Iñaki Petxarromanek, baina lehen aldiz, eleberria publikatu du idazle lasarteoriatarak. Desorduetan idatzi behar omen du Petxarromanek, ez baitu denbora askorik izatenlana dela eta. Hala ere, baleazaleen hilketak fikzionatzen bere ekarpena egin zezakeela pentsatu zuen.

**Zure lehen eleberria da, baina ez duzu idatzitako lehen liburua. Desberdina izan al da idazteko prozesua?** Bai prozesua, baita buruan egiten dituzun eskemak ere. Orain arte egin ditudan lanak kazetaritza saiakerak izan dira. Informazioa biltzeko eta antolatzeko era eguneroko lanean egiten dudaren antzekoa izaten da.

Oinarri historikoa duen eleberria da oraingoa, hau da, XVII. mendeko egiazko gertaera batean oinarritutakoa. Baina fikzioa ere erabiltzen dudanez, pertsonaia eta gertakari batzuk asmatzeko beharra izan dut. Pertsonaia horien izaera ere nire esku dago, nolabait esateko.

**Nola otu zitzaizun baleazaleei buruzko eleberria idaztea?**

2014ean oporretan izan nintzen Islandian eta bertan izan nuen gertakari honen berri. Interes handia izan nuen eta orduan hasi nintzen dokumentatzen eta informazioa bilatzen.

Hasiera batean, Berriarako erreportajea egitea besterik ez nuen nahi. Baina horretarako baino gehiagorako ematen zuela ikusirik, inguruko baten batek bota zidan eleberria idazteko aukera. Orduantxe animatu nintzen.

**Istorioaren berri Islandian izan zenuen, edo hara joaterako ezagutzen zenuen?**

Ez, gai honen berri ez nuen. Badakit, esaterako, iaz, sarraskiaren 400. urteurrenaren harira albiste asko egon zirela. Batetik, Islandiar gobernua erreparazio bila, barkamena eskatzen zuelako eta bertan behera uzten zutelako euskaldunak hiltzea baimentzen zuen lege dekretu

hura. Bestetik, kongresu bat ere egin zen.

Hemen gaia ere pil-pilean izan da, baina duela bi urte gaiaren berri izan nuenean, informazioa egonik ere, ez zen asko eta ez zegoen oso zabal-duta.

**Zerk harritu zintuen gehien istoriotik?**

Hilketaren gordintasunak eta gertakariaren larritasunak. 30 hildako baino gehiago izan ziren, arrantzale langileak zirenak. Horrek bultzatzen ninduela uste dut. Gertakariari buruzko euskarazko libururik ez egoteak ere eraman ninduen erabakia hartzera. Bestalde, gaiari tiraka kontu interesgarri asko aurkitu ditut, arrantzaleei edota baleazaleei dagozkionak. Animatuko nuke jendea orduko bizimoduaren oinarritutako liburua irakurtzera, pasarte oso interesgarriak baitaude.

**Akzioa gertatzen den eskualdean egon zinen?**

Eskualde horretan ez. Pasa nintzen Dyrafjörður Ondokotik. Baina bertan ez nintzen egon. Izan ere, oso eskualde bakartia da eta gaur egun ere iristeko zaila da. Urruti dago eta errepideak ez dira oso onak. Ez ginen bertan barneratu. Egia esan, Islandiako beste zonalde batzuen antza badu, urrutiago dagoen arren.

**Euskaldunak dira protagonista, baina kontakizun gutxi iristi zaizkigu.**

Orain dela 400 urteko kontua da. Gaiak badu bere erakargarritasuna. Aztertuz gero, hautematen da euskaldunok bale ehizarekin, arrantzarekin edota ontzigintzarekin izan dugun harremana. Nire ustez lotura hori pixka bat ahaztuta dugu.

Bestalde, Espainiar eta Frantziar Estatuaren parte izanda, eta hainbeste gerra, hilketa eta saltsetan egon gara nahastuta. Halako gertakari isolatu bat gure herriko historian nolabait ahaztuta geratu dela esango nuke.

**Islandian gertatua, XVII. mendean... gogorra izango zen dokumentazio lana.**

Bi dokumentu historiko nagusi daude. Bata, Jon Gudmunsson apaiz protestanteak idatzitakoa.



Seigarren liburua du Petxarromanek, baina bere lehen eleberria da

Euskaldunen adiskidea zen hura, eta haien aldeko bertsioa eman zuen gehienbat. Beste bertsioa Ari Magnussonen idatzitakoa. Euskaldunak hiltzea agindu zuen magistratua zen eta lehenari erantzun zion bere lanean. Bi bertsioak oinarri direla, beste historialari batzuek osatu dituzten idazlan osatuagoak ere baliatu ditut.

Hortik aurrera, beste dokumentazio lanak zerikusia du baleazaleek garai horretan zuten bizimoduarekin, Islandiako eta Euskal Herriko bizimoduak, lanbideak... olioarekin zer egiten zen. Gertakariak dagokionez, ez dago besterik.

**Arraroa egin zaizu egiazko pertsonaiak fikzionatzea?**

Uste dut eleberraren funtsa hori dela, azken batean. Gaur egungo testuinguruan kokatuz gero, pertsonaiak zeure kasa moldatu behar dituzu, bakoitzari bere bidea emanez. Egia da, nire kasuan, orain arte literatura gutxi egin dudanez, nahiko ezohikoa egin zaidala.

Nik banekien liburu hau jendearentzat erakargarria izateko fikzionatua izan behar zuela. Liburua, bestela, gertakari soka izango litzateke eta hori historialariek nik baino askoz hobeto egingo lukete. Gai honi egin niezaiokeen ekarpena literarioa zela argi nuen eta horretan saiatu naiz.

**Zer moduzko erantzuna jaso duzu?**

Irakurleen esku uzten dut hori. Orain arte iritsi zaidana eta entzun dudana gehien bat positiboa izan da, kritika positiboak. Irakurle txokoren batean ere egon naiz, eta jendea nahiko pozik ikusi dut liburuarekin. Hortik aurrera, ez dakit. Kon-

tuan hartu behar da liburua kaleratu zela bi hilabete direla, eta ez da hainbesteko epea ondorioak ateratzeko.

**Beste eleberririk idazteko gogorik bai?**

Oraingoz ez. Hau idatzi berria dut eta bere bidea egin beharko du. Idazten dudana seigarrena da eta hurrengo batean burua nondik joko didan zehaztea zaila da. Bestela ere lanpetuta nabil eta idaztea nahiko sakrifizio izaten da, desorduetan lan egin behar izaten dut... Beraz, saiatuko naiz poliki eta lasai hartzen.

**Eleberria Islandiara eramateko asmorik bai?**

Hori ez dago nire esku. Islandian norbaitek interesa balu liburuak Islandiarara itzultzeko argitaletxearekin hitz egin

beharko luke, eta ni pozik, baina hori beste batek egin beharreko lana da.

**Beste bi lan gertakari hauei buruzkoak, bat islandieraz eta bestea gaztelaniaz (biak euskarara itzuliak), irakurri dituzu?**

Ez. Islandieraz idatzitakoaren berri baneukan, baina jatorrizko hizkuntzan soilik zegoen. Orain ingelesera itzuli dute. Euskarazko bertsioa gazte-txoei egokitutakoa da.

Gaztelaniazkoa idazten ari nintzela eduki nuen bere berri. Zalantzan izan nintzen irakurri edo ez, eta azkenean erabaki nuen ez egitea. Ez nuen nahi nire lana oztopatzea edo, nolabait, eragitea. Orduko nire lan eta eskemak garatuak nituen eta uste nuen onik egingo ez zidala antzeko istorio bat irakurtzeak.



Iñaki Petxarroman  
KEAREN FIORDOA

Euskal baleazaleen hilketak da liburuaren ardatza.